

HARREMANAK

Gure bezeroak ezagutzeko, ezinbestekoa ikusten dugu hasierako elkarrizketa sakon bat egitea. Honek erakutsiko digu pertsona bakoitzaren beharrianak zeintzuk diren eta baita garatu nahi dituen gaitasun, gustu edo nahiak. Honen arabera bezeroarekin batera helburu batzuk ezarriko ditugu eta helburu horietara iristeko ekintza posibleak identifikatuko ditugu. Betiere ekintza hauek taldean egitea bilatuko, horrela aldi berean harreman sozialak landuz. Gogoratu behar baitugu enpresaren helburua bezeroen ongizatea hobetzea dela, aktibo eta komunitate bateko kide sentituz.

Hasierako elkarrizketra hori kontuan hartuta, aldikako jarraipena egingo diegu bezeroei, betiere nola aurkitzen diren jakiteko eta hobekuntzak egiten jarraitzeko. Hortaz esan genezake bezeroekin izango dugun harremana oso hurbilekoa izango dela.



Komunitateko kide bakoitzak, erreferentziazko pertsona bat izango du ezarrita, hau da, tutore bat izango du arazoren bat balego edota bere iradokizun eta proposamenak entzuteko. Pertsona hori gutariko bat izango da. Lokala ere egunean zehar beti egongo da irekita, eta funtzio bera izango du.

Bolondres talde bat martxan jartzeko asmoa ere badugu, nagusiek gazteekin harremanik ez galtzeko. Horrez gain ekintzetan ere bolondres talde honek lagunduko digu. Edozein galdera edo zalantzari erantzuteko prest egongo dira, enpresako beste edozein kide bezalaxe.

